

**Donostiako udalean  
errepresaliatutako  
langileei buruz**

**Sobre las y los trabajadores  
represaliados en el  
ayuntamiento de  
Donostia - San Sebastián**

**1936-1940**





**Donostiako udalean  
errepresaliatutako  
langileei buruz**

**Sobre las y los trabajadores  
represaliados en el  
ayuntamiento de  
Donostia - San Sebastián**

**1936-1940**



Lehen argitalpena: 2013ko martxoan

© Donostiarra Udalak

© Aranzadi Zientzia Elkartea

Autorea: Ainhoa Marañon, Elisa Querejeta,

Cristina Martín eta Iñaki Egaña

Azala eta Maketazioa: Grafikoki

Azaleko argazkia: Donostiarra errepublikar udalbatza, 1931ko  
hauteskundeen ondoren, Fernando Sasiain buru duela.

Kutxateka. Fotocar fondo. Ricardo Martin

Lege Gordailua:

Primera edición: Marzo de 2013

© Ayuntamiento de San Sebastián

© Sociedad de Ciencias Aranzadi

Autor: Ainhoa Marañon, Elisa Querejeta,

Cristina Martín e Iñaki Egaña

Portada y maquetación: Grafikoki

Foto portada: Corporación donostiarra republicana tras  
las elecciones de 1931 presidida por Fernando Sasiain.

Kutxateka. Fondo Fotocar. Ricardo Martin

Depósito legal:

## Aurkibidea Índice

### Donostiako udalean errepresaliatutako langileei buruz 1936-1940

	Hitzaurrea .....	9
1	Lan-metodologia .....	11
2	Sarrera historikoa .....	12
3	Lanpostua uztearen ondoriozko expedienteak eta garbiketa-espedienteak. Azterketak eta adibideak .....	16
3.1	Espedienteen azterketa .....	19
3.1.1	Lanpostua uztearen ondoriozko expedienteak .....	19
3.1.2	Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteen zenbait kasu .....	28
3.1.3	Garbiketa-espedienteak.....	34
3.1.4	Garbiketa-espedienteen zenbait kasu .....	42
4	Azken ondorioak.....	46
5	Oinarrizko bibliografia .....	47

### Sobre las y los trabajadores represaliados en el ayuntamiento de Donostia - San Sebastián 1936-1940

	Prólogo .....	53
1	Metodología de trabajo.....	55
2	Introducción histórica .....	56
3	Expedientes de abandono y expedientes de depuración. Análisis y ejemplos .....	61
3.1	Análisis de los expedientes .....	64
3.1.1	Expedientes de abandono.....	64
3.1.2	Algunos casos de expedientes de abandono.....	72
3.1.3	Expedientes de depuración .....	78
3.1.4	Algunos casos de expedientes de depuración .....	87
4	Conclusiones finales. ....	91
5	Bibliografía básica.....	92



**Donostiako udalean  
errepresaliatutako  
langileei buruz**

**1936-1940**



Errepublikaren alde izan zitezkeelako “garbitu zituen” frankismoak maixu-maistrak, epaileak eta fiskalak, intelektualak, historialariak, kazetariak eta funtzionarioak, baita udal langileak ere...

Donostian ere hori gertatu zen. Garrantzitsua da gertatu denaren egia argitzea, izan diren gertakari guztiak, alde guztietakoak kontatzea.

Jakinda beste aldekoak ere izan zirela eta lan honetan jasoak daudela, demokratikoki hautatuta zeuden herri erakundeei eusteagatik, estatu kolpearekin bat ez egiteagatik hain zuen ere, Errepublikaren alde zeuden haien atxilotuak eta zigortuak, fusilatuak edota lanetik kanporatuak izan ziren. Haien izenak eta jardun duinak herriaren oroimenetik ezabatzen saiatu ziren.

Baina herriaren alde egin zuten haien ordea, ez ditu herriak ahaztu. Ez ditugu ahantzi.

Ordainean dator orain, beraz, Donostiako udal funtzionario errepresaliatuen omenez, berriro ere demokratikoki hautatutako Udalak argitaratutako liburuxka hau. Herritar orok jakin beza behinolako militar kolpearen ondoriook zeintzuk izan ziren Donostiako Udalean.

**Juan Karlos Izagirre**  
Donostiako Alkatea



## **Metodología**

Aurkezten dugun lan honen bidez, Donostiako Udalak omenaldia egin nahi die 1936ko uztailaren 18tik, hau da, Bigarren Errepublikako gobernuaren aurka militarrak matxinatu ziren egunaz geroztik, 1940ra bitartean errepresaliatuak izan ziren langile errepublikanoei.

Horretarako, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Donostiako Udalak hitzarmena sinatu ondoren, Ainhoa Marañonek hiriko Udal Agiritegian dauden espedienteak bildu eta taula batean banan-banan xehatu ditu; alde batetik, lanpostua uztearen ondorioz Udalak ireki zituen espedienteak eta, bestetik, garbiketaren ondorioz irekitako espedienteak. Datuak Cristina Martinek osatu ditu eta dokumentuaren amaierako 1. eranskinetik 1. taulan azaltzen dira, fitxategi digital batean. Hona hemen fitxategi horrek daukan informazioa:

- 1- Espedientea nori dagokion: izena eta abizenak.
- 2- Sexua.
- 3- Langilearen saila.
- 4- Langilearen kargua.
- 5- Espedienteak zenbat urte irauten duen, 1936 eta 1940 bitartean.
- 6- Leporatzen zaizkion karguak.
- 7- Administrazio-espedientea. Azkenean hartutako erabakia.
- 8- Espediente judiziala, kondena.
- 9- Gerran izandako parte-hartzea.
- 10- Hildakoak.
- 11- Kodea.
- 12- Iturriak.

Guztira, 1623 langile prozesatu zituzten. 817 pertsona lanpostua uzteagatik espedientatu zituzten eta horietako 806 egotzi egin zituzten, 253 epaituak izan ziren eta 82 kartzelan sartu zituzten.

Azkenik, Elisa Querejeta, Iñaki Egañaren laguntzarekin, aipatutako informazioaren arabera lortutako datuak testuinguru jakin batean ipini eta interpretatu ditu eta lan hau idatzi du.

## 2. Sarrera historikoa

Ezin izan dugu zehatz-mehatz ezarri 1936an udalean lanean ari ziren langileen kopurua, zeren erroldak 1950az geroztik egiten hasi ziren, eta nominen arabera ez baitaukagu datu homogeneorik. Hori kontuan izanik, espedientatuen taldean 817 pertsona zeuden lanpostua uzteagatik eta “mugimendu nazional laudagarriaren kontrakoak” izateagatik, eta 806 egotzi egin zituzten, alderdi politiko edo sindikal ezkertiar edo nazionalistaren bateko partaide izateagatik. Aipatutako langileen kopuru hori Gipuzkoako Diputazioan egotzi zituzten 398 funtzionarioekin konparatuz, Pedro Barrusok dioenez<sup>1</sup>, Donostiako Udalean irekitako espedienteen kopuruaren ideia bat izan dezakegu.

Espedienteok tropa frankistak hirian sartu ziren egunaz geroztik hasi ziren bideratzen, hau da, 1936ko irailaren 13az geroztik, eta zenbait prozesuk 1950eko hamarkadako lehenbiziko urteetara arte iritsi ziren. Oro har, espediente luzeak dira, eta Dekretu bidez onartuz ziohan legediaren arabera ireki ziren —gerraren hasierako legeak ziren eta *Junta Nacional de Burgos* zeritzonak ematen zituen aginduak eta horrek probintziako gobernadore zibilaren eta Donostia alkatearen esku lagatzen zituen zegozkion eginkizunak.

Horrela azaltzen dute Santos Juliak eta Giuliana Di Febok:

“Errepresioa azkar hasi zen, militarren matxinada izan zen egunean bertan. Militarrentzat errepresioa euren Estatu Berria eraikitzeko funtsezko elementua zen: militarrek 1936ko uztailean estatu-kolpea eman baino aste batzuk lehenago “Zuzendarriak”<sup>2</sup> sinatutako 1. Instrukzio Berezian adierazten denez, ekintzak biziki bortitzka izan behar du, etsaia lehenbailehen mendean hartzeko, zeren indartsua baita eta ondo antolatuta baitago”<sup>3</sup>.

1936ko matxinadak ez zituen donostiarrek ezustean harrapatu. Donostian udako oporrak ziren orduan, eta hilabete arrunt batean baino jende gehiago zegoen.

I. Egañak dioenez:

“1934ko abenduan egindako biztanleen erroldaren arabera, Donostian, 85.510 pertsona bizi ziren, Gipuzkoako guztizko biztanleen laurdena. Donostiako erdialdean eskuineko alderdiek irabazten zituzten hauteskundeak, eta inguruko auzoetan eta Parte Zaharrean, ordea, *Frente Popularraren* aldekoak ziren.”<sup>4</sup>

---

1 Barruso Bares P: *“La represión en las zonas republicana y franquista del País Vasco durante la Guerra Civil”* UPV-EHU Historia contemporánea nº35, 2007, 653 – 681.

2 Emilio Mola Vidal, Nafarroako gobernadore militarra eta estatu kolpeareen buruzagietako bat.

3 Di Febo, G; Julia, S: El Franquismo. Una introducción. Crítica, 2012. 29. or.

4 Egaña, I: “El franquismo en Donostia”, 2011, 8. or.

Jendeak gerra etorriko zela sumatzen zuen, eta Maria Asuncion Amilibia kotatzen digunez:

"1936ko maiatzaz geroztik, sumendia noiz lehertuko zain bizi ginen denok"<sup>5</sup>

Horri buruz, Mario Salegik hauxe dio:

"Donostia, 1936ko uztailaren 17a. Arratsaldeko hirurak ziren. Kale estuetan, hiriko parte zaharreko ezin konta ahala taberna eta jantokiak animatzen hasi ziren udako arratsaldeetako itzal urdinaren pean. Pare bat ordu nituen taldekideekin urtero izan ohi nuen batzarrera joan baino lehen; beraz, paseatzen hasi nintzen nora ezean.

Arratsaldeko lehenbiziko ordu horietan, ibiltari gehienak udatiarrak eta penintsulako hainbat probintziatik etorritako turistak ziren: hotelen eta ostatuen jabeek pozarren zeuden sumatzen zen udaro bikainaz pentsatuz eta denboraldia zein azkar hasi zen ikusita. Kanpotik zetozenean udatiarren kopurua izugarria zen, eta hirian egoitzarik aurkitzen ez zutenez, kostaldeko inguruko herriean bilatzen zuten. Spainiako aristokrazia guztia euskal hiri honetan bilduta zirela ematen zuen. Jende apartaren atzetik Madrilen kreditatutako diplomatikoak ailegatu ziren, horrek inor harritzen ez bazuen ere. Hala ere, uda hora ez zen uda arrunta. Oporraldi osoa Donostian pasatu ohi zuten familia askok Frantziako euskal kostaldean ezarri zuten egoitza. Jende guztiak pentsatzen zuen, goiz jakin batean esnatzean, armadako soldaduak ikusiko zituela kaleetan. [...].

Egun haietan, *Frente Popularrak* otsailean hauteskundeak irabazi zituenetik, elkarrizketa guztietaan gai bakarra mintzo zen jendea, hots: noiz aterako ote zen armada kalera [...] 1936ko uztailaren 18an, larunbatean, goizean goiz, Marokon, aurreko egunean izan zen matxinadaren lehenbiziko berria izan genuen. Antigua auzora etxerantz zihoan treneko langile batek esan zigun".<sup>6</sup>

1936ko uztailaren 18ko matxinada militarra izan zenetik, irailaren 13ko eguerdira arte, hau da, Lacarren Tertzioa hirian sartu zenera arteko denbora-tartea laburra izan zen, baina oso gogorra, Manuel Chiapusok *Los anarquistas y la guerra en Euskadi. La comuna de San Sebastian* deritzon liburuan kontatzen digunez. Botere militarren duda-mudaren ondorioz eta hiriko kaleetan ezkerreko alderdiek egin zuten erresistentzia eta defentsari esker, altxamenduak porrot egin zuen.

1936ko uztailaren 27an Defentsa Batzordea sortu zen Errepublikaren lurraldea defendatzeko, eta erresistentzia horrek 1936ko irailera arte iraun zuen. Hilaren 5ean, tropa frankistek Irun hartu zuten, 10ean eta 11n Hernani, eta 1936ko irailaren 12an Donostia

---

5 Amilibia, M. A.: "Diario de una nostalgia", Txalaparta, 2006, 261. or.

6 Salegi, M.: "Verano del 36. Memorias de un gudari" Txalaparta, 2005, 10 – 14 orr.

ebakuatu egin zen. Harrezkero, erbestea hasi zen Gipuzkoako biztanleen heren batentzat, eta erbeste horren lehenbiziko etapa Bizkaia izan zen, alboko lurraldea.

Donostiako Udaleko Errepublikako azken Udalbatza, Udal Agiritegian dakinaren arabera, 1936ko uztailaren 15ean egin zen. Burua Fernando Sasiain Brau izan zen eta honako zinegotzi hauek parte hartu zuten: Pio Chaos, Castor Torre, Luis Iglesias, Pedro Fillol, Jose Imaz, Fermin Ortega, Jose Olaizola, Jesus Batanero, Ceferino Martiarena, Sergio Echeverria, Esteban Pasamar, Jose Azpiazu, Pablo Ostolaza, Miguel Parra, Victoriano Ibarbia, Isidro Mendiola, Jose Luis Abrisqueta, Luis Anoeta, Pedro Andonaegui eta Pedro Soraluce. Parte hartu ez zuten zinegotziak: Sotos, de la Cruz, Zubiri, Lasarte, Trecu, Torrijos, Zaldia A, Londaiz, Zaldias, Mendizabal, Sanmartin, Vidaurre eta Laboa.

Fernando Sasiain 1931ko apirilaren 14an alkate izendatu zuten, *Conjuncion Republicano-Socialista* taldearen aldetik. Autonomia Estatutua idazten parte hartu zuen eta bere etxean, 1930eko martxoaren 24an, Bigarren Errepublika ezartzeko balio izan zuen Donostiako Itunaren batzarra egin zen. Geroago alkatezta galdu zuen eta 1936. urtearen hasieran kargua berreskuratu zuen.

Uztailaren 15eko batzarraz geroztik (betiere, udal-akten arabera) Donostiako udalbatza ez zen berriz ere bildu agintari berriek kargua hartu arte, 1936ko urriaren 7an.

Egun hartan, saio oso luze batean, Udal berria osatu zen. Jose Maria Arellano gobernadore zibil izendatu zuten eta Jose Mugica Mugica monarkikoa ezarri zuten alkate. Udalbatza berriko zinegotziak honako hauek izan ziren: Juan Antonio Olazabal, Juan Francisco Puente, Juan Jose Peña, Fuerteventura kondea, Jose Maria Ortiz de Urbina, Fernando Zubiri, Isidro Mendiola, Florencio M. morroia, Felix Olano, Arturo Lizaso, Ramon Bianchi, Eugenio Saldaña, eta Pablo Leoz. Honako hauek ez zuten saio horretan parte hartu: Enrique Saenz Alonso, Pantaleon Damborenai, Ignacio Arratibel, Avelino Elorriaga, Bernardo Elio, Jose Maria Barcaiztegui eta Eugenio Aizpurua.

Testuinguru berri horretan, eta aginte gorenek aginduta, garbiketa egiteko lana hasi zen.

Pedro Barrusok dioenez: "Garbiketa egiteko lehen araua oso azkar argitaratu zen, 1936ko uztailaren 27, hain zuzen. Arau horren arabera, zenbait alkate eta zinegotziri kargua kendu zitzaien, euren herriak okupatzen zituzten arabera. Esan dezakegu, horixe izan zela lehenbiziko garbiketa. Geroago, Defentsa nazionalerako Batzordearen 108. Dekretua argitaratu ondoren, Gipuzkoako Administrazioaren egiazko garbiketa hasi zen"<sup>7</sup>

1936ko abenduaren 16an, Jose Mugica Mugica alkate berria mahaiburua izaki, egindako ezohiko saioko udal-aktetan Alkatearen eta batzorde guztien txostenak azaltzen dira, udaleko funtzionarioek eta langileek lanpostua uzteko proposamena eginez, abenduaren 5eko Lege Dekretuaren eta abenduaren 3ko Estatuko Gobernuaren 93. Dekretuan ezarritakoaren arabera.

---

7 Barruso, P: Violencia politica y represion en Gipuzkoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936 – 1945) Hiria liburuak, 2005, 435, 436 orr.

“Jaun txit gorena. Abenduaren 3ko Estatuko Gobernuaren 93. Dekretuaren aginduz, BOEn abenduaren 9an argitaratuta eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Gobernadore Nagusi txit gorenak abenduaren 12an egindako zirkularren aginduzerabaki hau hartzen da: lizentziarik, baimenikedoagintarieskudunen batek emandako komisiorik ez zuten edota agiriok agortu ondoren behar den epean aurkeztu ez ziren liberatutako zonako funtzionario eta langile guztiak espidienterik ireki gabe lanpostua uztaraztea, azken uztailaren 18tik aurrera; kasu horretan, ondorengo zerrendako udaleko bulegoko langileak ere sartzen dira. Berorren gorentasunak esandakoari dagokion adierazpena egin beza. IDAZKARITZA SAILA. Atal Zentrala. Ofizial takigrafoa. Antonio Recalde jauna. ESTATISTIKEN ETA KINTEN BULEGOA. Ofizial burua. Felipe Ambielle jauna. KALEKO UDAL TELEFONOEN BULEGOA. 2. mailako ofiziala. Manuel Caso jauna.”<sup>8</sup>

Ezarritako araudia berrikusita, aipatutako dekretuak eta 1936ko irailaren 13ko 101. eta 108. dekretuak, gerra-sasoian egin ziren eta erregimen berriak irekitako garbiketa-prozesuaren oinarria izan ziren, garbiketa-espidenteak bideratzeko arauak behin betiko ezartzen zituen 1939ko otsailaren 10eko Legea ezarri zen arte.

Honekin batera aipatutako Dekretuon edukia azaltzen da, gerra-sasoian egituratu zen legedi frankista berriaren adibide gisa:

**101. Dekretua**, Defentsa Nazionalerako Batzordearena, lantokitik kanpo zeuden langile publikoak lanpostuan aurkezteko arauak ezartzen zituena.

**93. Dekretua**, 1936ko abenduko, Francisco Franco berak egindakoa eta, beraz, Estatuko Gobernuarena, aurreko Dekretua ez betetzearen ondoriozko zigorrak ezartzen zituena.

**108/1936 Dekretua**, irailaren 13koa, Defentsa Nazionalerako Batzordearen Presidentearena, otsailaren 16ko hauteskundeez geroztik *Frente Popularraren* parte izan ziren alderdi eta talde politiko eta sozial guztiak eta, halaber, mugimendu nazionalari lagundi zioten indarren kontra egindako oposizioan parte hartu zuten erakunde guztiak legez kanpo uzten dituena. Dekretu horren 3. artikuluan adierazitakoaren arabera, aberriaren edo mugimendu nazionalaren kontrako jarrera izateagatik aipatutako neurriak hobesten direnean funtzionarioek betetzen duten kargua artezta egin daiteke eta langileak lanik gabe utzi edo ordezkatu egin daitezke. Eta laugarren artikuluan zehazten denez, arteztea edo lanik gabe uztea goiko organoak erabakiko ditu, expedientea egin ondoren.

**Abenduaren 5eko Dekretua**, estatuko gobernuarena. Testuaren idazpuruan bertan esaten denez: “funtzio publikoan lan eginda, Espanian anarkia- eta basakeria-egoera eragin duten eta oraindik zenbait probintziatan jasaten ari diren, ekintza politiko eta sozial adierazgarrietan parte hartu duten hiritar guztiei behar bezalako zigorra jarriko zaie”

---

8 Donostiako Udal Agiritegia, A01/L.607, 111 – 138 orr.

Aurrerago, lehen artikuluan adierazten denez, Estatuko Batzorde Teknikoak eta pasa den urriaren 1eko Legearen arabera sortutako gainerako erakundeek egotzi egingo dituzte behin betiko, Mugimendu Nazionala baino lehen eta ondoren izandako jokabidearen arabera Mugimenduaren kontrakotzat jotzen diren langile guztiak, lanean nola hasi ziren eta zein eginkizun duten kontuan hartu gabe eta Estatuko, probintziako edo udaleko funtzionarioak diren bereizi gabe.

Jose Mugica Mugica monarkikoak alkate izaten jarraitu zuen 1937ko otsailaren 3ra arte. Data horretan Jose Maria Arellano gobernadore zibilak alkatea bera eta zinegotziak lanetik kendum zuen, nahikoa gogor ez zutela jokatzen leporatuz. Orduan, Jose Maria Angulo izendatu zuen alkate. Arellanok hauxe esku zion kargua hartu zuenean: "udaleko langileen artean nazionalista bat ere ez ustea"<sup>9</sup>

Halaber, aipatu behar da, garbiketen kontua falangistek eta errekeeteek boterea kontrolatzeko zitzuten liskarren artean sortu zela. Falangistak kontrola lortuz joan ziren eta gatazka erabakita utzi nahi zuten 1937ko apirileko Bategite Dekretuaz geroztik, talde biak *Falange Española Tradicionalista y de las JONS* izeneko alderdi bakarrean bildu zirenean.

Horrela garbiketaren kontua interes nagusiko gai bihurtzen da 1937 eta 1938 urteetan. Helburua administrazioan erregimen berriaren aldeko jendea jartzea da, instituzioen eta gizartearren kontrola ziurtatzeko. Horretarako, garbiketa-espedienteak irabazleak saritzeko eta galtzaileak zigortzeko era bat dira.

### **3. Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteak eta garbiketa-espedienteak. Azterketak eta adibideak.**

Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteak frankistak hirian sartu zirenean, hau da, 1936ko irailaren 13an, lanpostua utzi zuten Udaleko langileei dagozkie. Garbiketa-espedienteetan susmagarriak izateagatik edo erregimen berriaren nahikoa aldekoak ez izateagatik egotxitako Udaleko langileen historia biltzen dute, lana utzi bazuten ala ez kontuan hartu gabe.

Agintari berrien asmoa Errepublika garaiarekin erabat hautsi eta erregimen berriaren aldeko funtzionarioekin berriro hastea zen.

Lanpostua uztearen ondoriozko 817 espediente eta 806 garbiketa-espediente<sup>10</sup>, zenbatu ditugu; guztira hiria zuzentzen duen erakundean ari ziren Errepublika garaiko 623 langile errepresaliatu dira.

9 Luengo, F: "La formacion del primer poder local franquista en Guipuzcoa (1937 – 1945)" *Geronimo de Ustaritz, 4. boletina, 85 or.*

10 Eranskina, 1. taula

Lehenbiziko ondorio gisa esan dezakegu, 817 espediente horietako 743 lanpostua uzteagatik auzipetu zituzten eta behin betiko egotzi zituzten; hau da, % 91,9 eta garbiketa jasan zuten 806etako 750ek kargua berreskuratu zuten; hau da, % 92,9; guztiak ohartarazi egin zituzten eta batzuei soldata kendu eta zigorrak ezarri zizkioten, izapideak egiten aldi luzea pasatu ondoren.

Udalaren nomenklatura erabiliz, kasu bietan sektorerik kaltetuena langileena da: % 81 lehen kasukoak eta % 73 bigarren kasukoak, ondorengo koadroan azaltzen dugunez:

**Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteak:**

LANGILEAK	655
BURUAK ETA ERDI-MAILAKO ARDURADUNAK	84
BESTELAKO PROFESIONALAK	78
	817

**Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteak  
Donostiako udalean 1936-1940**


**Bestelako profesionalak %9**

**Buruak eta erdi-mailako arduradunak  
%10**

**Langileak %81**

### **Garbiketa-espedienteak:**

LANGILEAK	590
BURUAK ETA ERDI-MAILAKO ARDURADUNAK	104
BESTELAKO PROFESIONALAK	112
	806



Langileoi leporatzen zaizkien karguak aztertu ondoren, hainbeste lagun auzipetzeko arrazoiaik zuzenean lotuta daude joera politikoarekin eta Errepublikako erregimenarekin zuten erlazioarekin.

Auzipetzeez gain, erantzukizun politikoen ondoriozko zehapenez gain, zigor osagariak aplikatu ziren, eta, batuetan, aldeko txostenak egonda ere, zenbait funtzionarioei ez zieten herri-administrazioan sartzen utzi, edota, nahitaez, *FET y de las JONS* alderdiko militanteak izatera behartzen zitzutzen udaleko lanpostuetan jarduteko. Horrez gain, kontuan hartu behar da zenbait plaza preso edo soldadu ohientzat gordetzen zirela. Asko, expediente judizialean jasan ondoren, kartzelan sartu zitzutzen.

Aipatutako guztia **garbiketa sozialaren** parte da, eta, **militarren errepresioarekin** (atxilotekak, fusilamenduak, gerra-kontseiluak...), eta **errepresio ekonomikoarekin** (ondasunak konfiskatzea, zehapenak eta isunak, lanpostuak galtzea...) batera garaiko errepresioaren mapa osatzen dute.

### **3. Espedienteen azterketa.**

#### **3.1.1 Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteak**

Eranskinean<sup>11</sup> azaldutakoaren arabera, hona hemen **lanpostua uztearen ondoriozko espedienteen** azterketarako bildu dugun informazioa:

- 1- Espedientatuaren izena eta abizenak.
- 2- Sexua.
- 3- Langilearen saila.
- 4- Langilearen kargua
- 5- Espedientearen iraupena, 1936-1940 bitartean.
- 6- Leporatzen zaizkion karguak.
- 7- Administrazio-espedientea. Hartutako azken erabakia.
- 8- Espediente judizia, kondena.
- 9- Gerran parte-hartzea.
- 10- Heriotzak.
- 11- Kodea.
- 12- Iturriak.

1- Izena eta abizena.

207 pertsonen bigarren abizena ez da azaltzen.

2- Sexua.

Sexuari dagokionez, 747 gizonezko eta 70 emakume dira.

3 eta 4 - Langileari dagozkion sailaren eta karguaren araberako banaketa honako hau da<sup>12</sup>:

Lanpostua uztea. Lanbideen eta kidegoen araberako azken azterketa	Langile kopurua
Aforatzailea, udal arielen kidegoa	1
Aforatzailea, ur kontagailua	2
Igeltseroa, udal langileen lantaldeak	13
Estoldak, udal langileen lantaldeak	16
Asfaltatzaila, udal langileen lantaldea	6
Lanbide-eskolako laguntzailea	3

11 1. Eranskina, 1. taula

12 Urdinez, langileak; gorriz, buruak eta erdi-mailako arduradunak eta berdez, bestelako profesionalak.

Mekanografoaren laguntzailea, funtsen gordailu-zaintza	1
Txoferren laguntzailea	3
Iturginaren laguntzailea, udal langileen lantaldea	3
Maisuaren laguntzailea, arte eta lanbide eskola	5
Makinetako laguntzailea	4
Lehortzailearen laguntzailea, hondartzak	5
Odontologia-bulegoko bedela, ongintza	1
Kale-garbitzailea, garbiketa-kidegoa	92
Bedela, Arte eta Lanbide Eskola	2
Suhiltzailea, udal langileen lantaldea	41
Batelaria, hondartzak	9
Kabua, hainbat sail	9
Kutxazaina, hondartzak	1
Kaleak, udal langileen lantaldea	18
Bideak, udal langileen lantaldea	55
Hargina, udal langileen lantaldea	1
Langileburua, hiriko udal telefono-sarea	2
Langileburua, udal langileen lantaldea	3
Arotza, udal langileen lantaldea	9
Karrozeria-konpontzailea, udal langileen lantaldea	2
Zaindaria, hiriko udal telefono-sarea	22
Txoferria	3
Kobratzailea, hiriko udal telefono-sarea	1
Antiguako azokako erkidea	1
Groseko azokako erkidea	1
Anbulantzia-gidaria	1
Atezaina, hainbat sail	7
Delineatzialea, uren arloa	1
Delineatzialearen laguntzailea, obrak	2
Altzako fondoen gordailuzaina	1
Desinfektatzialea, Higienerako Udal Institutua	4
Zuzendaria, eskolak	2
Zuzendaria, San Telmo	1
Berezitua, garbiketa kidegoa	2
Argiketariak: herriko argiak (5), udal antzokia (1), Miramar jauregia (1)	7
Arduraduna hondartzak eta ama-eskola	4
Bainuetxeko arduraduna	2
Kabina-arduraduna	1
Komunetako arduraduna	1

Garbiketen arduraduna	11
Garbitegiko arduraduna	1
Garbitegi publikoetako arduraduna	2
Garbiketen arduraduna	5
Sorospen etxeko garbiketen arduraduna	1
Telefono eta komunetako arduraduna, arrandegiak	1
Komunetako arduraduna	13
Hondartzetako arduraduna	1
Karrozeria-konpontzaileen arduraduna, udal langileen lantaldea	2
Garbitasun arduraduna, hiltegi publikoak	1
Bainuetxeetako arduraduna	1
Lehortegiko arduraduna, hondartzak	1
Zapalgailuetako sugina, udal langileen lantaldea	1
Gabarraria, hondartza	1
Udaltzaina	100
Errementaria, udal langileen lantaldea, 1 udal hiltegietakoa	12
Langileen ikuskaria, obrak	1
Kontu-hartzailea, udal arielak	1
Lorategiak, udal langileen lantaldea	21
Udaltzain burua	1
Zerga eta tasa bulego burua	1
Nabe burua, hiltegi publikoak	1
Letradu aholkulari burua	1
Jornalaria, hiltegi publikoak	7
Lakiolaria, higienerako udal institutua	1
Arropa-garbitzaileak	4
Iturgina, udal langileen lantaldeak	10
Maistra, hainbat sail	6
Maisua, hainbat sail	14
Zentral hidroelektrikoko makinista	2
Emagina, arielen kidegoa	1
Mekanikaria, hiriko udal telefono-sarea 5	8
Mediku ikuskaria eskola-medikua	1
Morroia, hainbat sail	4
Garbiketarako emakumea, etxe nagusia	1
Musikaria, udal Musika Banda	45
Langilea, udal langileen lantaldea	19
Odontologoa, sorospen-gelako medikua	1
Ofiziala	2

2. Mailako ofiziala	7
3. Mailako ofiziala	3
Ofizial burua	4
Takigrafiako ofiziala, etxe nagusia	1
Sasoiko langilea, ofiziala	1
Ofiziala, hainbat sail	1
Zine-operadorea, arte eta lanbide eskola	1
Ordenantza, etxe nagusia	6
Peoia, herriko argiak	2
Pintorea, udal langileen lantaldea	5
Polizia sanitarioa, Higienerako Udal Institutua	1
Atezaina, eskola-taldeak	4
Atezaina, hiriko udal telefono-sarea	2
Diru-biltzailea, hainbat sail	12
Idazkari kontu-hartzalea	1
Gauzaina, udaltzaingoa	1
Udaltzainen buruordea	1
Arielen buruordea	1
Danbolin-jolea	1
Sarrera saltzailea, San Telmo	1
Telefonista	5
Albaitaria Higienerako Udal Institutua	1
Jagolea	71
Eskola bisitaria	1
Guztira	812
Hutsak (ez daukagu lanbideari buruzko informazioirik)	5
Guztira	817

Gorago azaldu dugunez, lana uztearen ondoriozko prozesatuen guztizkoaren % 81 langileak dira, buruak eta erdi-mailako arduradunak % 10 dira eta gainerako % 9 bestelako profesionalei dagokie. Bakoitzari dagokion sektorearen banaketa kolorez markatuta dago.

##### 5- Espedientearen iraupena, 1936-1940 bitartean.

Lana uztearen ondoriozko expediente gehienak 1936ko irailaren eta abenduaren bitartean bideratu ziren. Txosten horietan langileek, lan egiten zuten Errepublikako Udalarekin batera Bizkaira joan zirela argudiatzen dute, baina hala eta guztiz ere, eta lanik gabe utzitakoak epailearen aurrean deklaratzeko aukerarik izan gabe, lanpostua uzteak

berehala kaleratzea dakar botere berrientzat.

#### 6- Leporatzen zaizkion karguak:

Agintari berrieik ezarritakoaren arabera, leporatzen zaizkien karguak honako hauek dira: lanpostua uztea, "mugimendu nazional aintzagari" zeritzona ez onartzea eta ezkerreko edo euskal nazionalista zen alderdi politiko edo sindikaturen bateko kide izatea.

#### 7- Administrazio-espedientea. Azken erabakia:

Kasuan kasuko, erabakiak honako hauek dira: % 91,9 lanpostutik behin betiko egoztea, hau da guztira diren 817 pertsonatik, 747.

35 lagun berriro onartu zituzten, 21ek kargua berreskuratu zuten eta 1 absolbitu egin zuten. Gerra-kontseilu 1 eta nahitaezko eszidentzia 1 daude. 9 hildako daude, denak matxinada militarraren lehenbiziko egunetan zenuak.

Lanpostua uztea. Lanbideen eta kidegoen araberako azken azterketa	Langile kopurua	Azken erabakia
Aforatailea, udal arielen kidegoa	1	Berriro onartzea
Aforatailea, ur kontagailua	2	Kargua berreskuratzea
Igeltsroa, udal langileen lantaldeak	13	Kargutik botatzea
Estoldak, udal langileen lantaldeak	16	Kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatza
Asfaltatzalea, udal langileen lantaldea	6	Kargutik botatzea
Laguntzailea, lan-eskola	3	Kargua berreskuratzea
Laguntzailea, mekanografoa, fondoen gordailuzaina	1	Berriro onartzea
Txofer laguntzailea	3	Berriro onartzea (1), kargutik botatza (2)
Iturgin-laguntzailea, udal langileen lantaldea	3	Kargutik botatza
Maisuaren laguntzailea, arte eta lanbide eskola	5	Kargutik botatza
Makinetako laguntzailea	4	Berriro onartzea (1), kargua berreskuratzea (1), kargutik botatza (2)
Lehortzailearen laguntzailea, hondartzak	5	Kargutik botatza
Badela del bulego odontologikoa, ongintza	1	Kargutik botatza
Kale-garbitzailea, garbiketa-kidegoa	92	Kargua berreskuratzea (1), berriro onartzea (1), besteak, kargutik botatza
Bedela, arte eta lanbide eskola	2	Kargutik botatza
Suhiltzailea, udal langileen lantaldea	41	Kargua berreskuratzea (1), berriro onartzea (2), besteak, kargutik botatza

Batelaria, hondartzak	9	Kargua berreskuratzea (2), besteak, kargutik botatza
Kabua, hainbat sail	9	hilda
Kutxazaina, hondartzak	1	Berriro onartza
Kaleak, udal langileen lantaldea	18	Berriro onartza (1), besteak, kargutik botatza
Bideak, udal langileen lantaldea	55	Kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatza
Hargina, udal langileen lantaldea	1	Kargutik botatza
Langileburua, hiriko udal telefono-sarea	2	Kargutik botatza
Langileburua, udal langileen lantaldea	3	Berriro onartza
Arotza, udal langileen lantaldea	9	Kargutik botatza
Karrozeria-konpontzailea, udal langileen lantaldea	2	Kargutik botatza
Zaindaria, hiriko udal telefono-sarea	22	Berriro onartza (2), kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatza
Txoferra	3	Kargutik botatza
Kobratzailea, hiriko udal telefono-sarea	1	Kargutik botatza
Antiguako azokako erkidea	1	Kargutik botatza
Groseko azokako erkidea	1	Kargutik botatza
Anbulantzia-gidaria	1	1 hilda
Atezaina, hainbat sail	7	Kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatza
Delineatzalea, uren arloa	1	Kargutik botatza
Delineatzalearen laguntzailea, obrak	2	Kargutik botatza
Altzako fondoen gordailuzaina	1	Berriro onartza
Desinfektatzalea, higienerako udal institutua	4	Kargutik botatza
Zuzendaria, eskolak	2	Kargutik botatza
Zuzendaria, San Telmo	1	Kargutik botatza
Berezitua, garbiketa kidegoa	2	Kargutik botatza
Argiketariak: herriko argiak (5), Udal Antzokia (1), Miramar jauregia (1)	7	Berriro onartza (1), besteak, kargutik botatza
Arduraduna hondartzak eta ama-eskola	4	Kargua berreskuratzea (2), kargutik botatza (2)
Bainuetxeko arduraduna	2	Kargutik botatza
Kabina-arduraduna	1	Kargua berreskuratza
Komunetako arduraduna	1	Kargutik botatza
Garbiketen arduraduna	11	Kargua berreskuratza (1), besteak, kargutik botatza
Garbitegiko arduraduna	1	Kargutik botatza
Garbitegi publikoetako arduraduna	2	Kargutik botatza

Garbiketen arduraduna	5	Kargutik botatzea
Sorospen etxeko garbiketen arduraduna	1	Kargutik botatzea
Telefonoen eta komunen arduraduna, arrandegiaik	1	Kargutik botatzea
Komunetako arduraduna	13	Kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatzea
Hondartzetako arduraduna	1	Berriro onartzea
Karrozeria-konpontzaileen arduraduna, udal langileen lantaldea	2	Kargutik botatzea
Garbitasun arduraduna, hiltegi publikoak	1	Kargutik botatzea
Bainuetxeetako arduraduna	1	Kargutik botatzea
Lehortegiko arduraduna, hondartzak	1	Kargutik botatzea
Zapalgailuetako sugina, udal langileen lantaldea	1	Kargutik botatzea
Gabarraria, hondartza	1	Kargutik botatzea
Udaltzaina	100	Kargutik botatzea, 1 hilda
Errementaria, udal langileen lantaldea, 1 udal hiltegietakoak	12	Kargutik botatzea
Langileen ikuskaria, obrak	1	Berriro onartzea
Kontu-hartzailea, udal arielak	1	Kargutik botatzea
Lorategiak, udal langileen lantaldea	21	Kargutik botatzea
Udaltzain burua	1	hilda
Zerga eta tasa bulego burua	1	Kargutik botatzea
Nabeko burua hiltegi publikoak	1	Kargutik botatzea
Letradu aholkulari burua	1	hilda
Jornalariak, hiltegi publikoak	7	Kargutik botatzea
Lakiolaria, higienerako udal institutua	1	Kargutik botatzea
Arropa-garbitzaileak	4	Kargutik botatzea
Iturgina, udal langileen lantaldeak	10	Kargutik botatzea
Maistra, hainbat sail	6	Berriro onartzea (1), kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatzea
Maisua, hainbat sail	14	Kargua berreskuratzea (4), berriro onartzea (2), besteak, kargutik botatzea
Zentral hidroelektrikoko makinista	2	Kargutik botatzea
Emagina, arielen kidegoa	1	Kargutik botatzea
Mekanikoa, hiriko udal telefono-sarea 5	8	Berriro onartzea (1), besteak, kargutik botatzea
Mediku ikuskaria, eskola-medikua	1	Kargutik botatzea
Morroia, hainbat sail	4	1ek 2 urtean etetea, besteak, kargutik botatzea
Garbiketarako emakumea, etxe nagusia	1	Kargutik botatzea

Zentral hidroelektrikoko makinista	45	Kargua berreskuratzea (1), berriro onartzea (1)
Langilea, udal langileen lantaldea	19	Kargutik botatzea
Odontologoa, Sorospen Gelako medikua	1	Kargua berreskuratzea
Ofiziala	2	Kargua berreskuratzea (1), 1 hilda
2. mailako ofiziala	7	Berriro onartzea (1), besteak, kargutik botatzea
3. mailako ofiziala	3	Kargutik botatzea
Ofizial burua	4	Kargua berreskuratzea (1), besteak, kargutik botatzea
Ofizial takigrafoa, etxe nagusia	1	Kargua berreskuratzea
Sasoiko langilea, ofiziala	1	Kargutik botatzea
Ofiziala, hainbat sail	1	Kargutik botatzea
Zine-operadorea, arte eta lanbide eskola	1	Kargutik botatzea
Ordenantza, etxe nagusia	6	Kargutik botatzea
Peoia, argiteria publikoak	2	Kargutik botatzea
Pintorea, udal langileen lantaldea	5	Kargutik botatzea
Polizia sanitarioa, higienerako udal institutua	1	Kargutik botatzea
Atezaina, eskola-taldeak	4	Kargutik botatzea
Atezaina, hiriko udal telefono-sarea	2	Kargutik botatzea
Diru-biltzailea, hainbat sail	12	Kargutik botatzea
Idazkari kontu-hartzalea	1	Absolbitza
Gauzaina, Udaltzaingoa	1	Kargua berreskuratzea
Udaltzainen buruordea	1	Kargutik botatzea
Arielen buruordea	1	Kargutik botatzea
Danbolin-jolea	1	Kargutik botatzea
Sarrera saltzailea, San Telmo	1	Kargutik botatzea
Telefonista	5	Berriro onartzea (2), etetea (1), egoztea (3)
Albaitaria, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Jagolea	71	Berriro onartzea (4), 1 hilda, gerra-kontseilua (1)
Eskola bisitaria	1	Kargutik botatzea
Guztira	812	Zenbatzeko, guztizko hau erabiliko da
Hutsak (ez daukagu lanbideari buruzko informazioa)	5	
Guztira	817	

Aipagarriak dira militarren matxinadaren lehenbiziko egunetako borroketan zendutako eta, seguruenik, matxinatu frankisten aldekoak ziren 9 hildakoen gaiak azterketa berezia eskatzen duen gaia da, behinik behin. Hildakoak honako hauek dira: Pedro Soraluce Goñi zinegotzia, Javier Pradera Ortega abokatua, Felix Salamero Santamarla txoferria, Juan Piñeiro jagolea, German Yangüas etxe nagusiko ofiziala, Antonio Vivar Tutón udaltzainen langileburua, Fructuoso Cascón Pérez udaltzainen kabua, Emilio Cordero Delgado udaltzaina eta Juan Lizarraga Iceta udaltzainen buruordea.

#### 8- Espediente judiziala. Kondenatua.

Guztizko 817 espedientetik 212 expediente judizial ireki ziren eta horietako 71 kartzelara kondenatu zituzten.

#### 9- Gerran parte hartza.

Guztizko 817 pertsonatik, 119k gerran parte hartu zuten hainbat batailoitan.

#### 10- Hildakoak.

Frentean 34 hil ziren, 8 fusilatuta eta 4 kartzelan; beraz, guztira 46 pertsona zenu ziren.

11- Kodea. Txostenean biltzen dira. 30 expedienteen kodea falta da eta expediente bat desagertu egin da.

#### 12- Iturriak. 1. eranskinoko 1. taularen oinean azaltzen dira.

Azaldutako guztiaz gain, egokia deritzogu urte haietako emakumeen lanari eta haien rol sozialari buruzko azalpen bat egiteari. Estatu espanoleko emakumeek lehenbiziko aldiz botoa eman ahal izan zuten 1933ko hauteskundeetan. Euskal emakumeei dagokienez, urte berean estatutarako bozkatu zuten eta hainbat lanpostutan lan egiten hasi ziren, batik bat, sorospen lanetan laguntzen, gizarte-laguntzan eta administrazio lanetan.

Sasoi berrieik, atzera pausua ekarri zuten, zeren, berriz ere, XIX. mendeararen amaierako legedia ezarri baitzen —1889ko Legea hain zuzen ere—. Lege horren arabera, emakumea norbaiten tutoretza behar duen gizakumea zen, adin txikikoa izango balitz bezala. Hortaz, zeregin sozial eta pertsonaletarako tutorea behar zuen; normalean, aita edo senarra izaten zen. Erregimen berrian, emakumearen zeregin nagusiak emaztea eta ama izatea dira.

### **3.1.2 Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteen zenbait kasu**

Txosten gehienak eskema honen arabera eginda daude: lehenbizi langilea dagokion lanpostuan ez dela aurkeztu adierazten duen jakinarazpena egiten da. Langileari hitzordua ematen zaio, lanpostua zergatik utzi duen arrazoia emateko. Udaltzaina langilearen etxera joaten da eta hitzordua jakinarazten dio aurkez dadin eta, dagokionean, lanpostua uzteagatik duen kargutik defendatzeko eta, azkenik, kargua kentzen zaio. Lehenago esan dugunez, hori 1936ko irailaren eta abenduaren bitartean gertatzen da. Gerra amaitu ondoren kausak zituzten askok espedientea berrikusteko eskatu zuten eta zinpeko deklarazioa aurkeztu zuten, armada hirian sartu zenean egin zituzten mugimendu guztiei eta euren joera politikoei buruzko datuak azalduz. Horrez gain, Guardia Zibilaren, Poliziaren, Parrokiaren, Falangearen, Udaltzaingoaren eta alkatearen beraren edota eragina duten pertsona jakin batzuen txostenak ere aurkeztu zituzten, aurretik adierazitakoa ziurtatzeko. Kasuen % 91,9, esan dugunez, kargua behin betiko uzteko erabakia hartu zen.

Sail zigortuenak	Langile kopurua
Udaltzaina	100
Kale-garbitzailea, garbiketa-kidegoa	92
Jagolea	71
Bideak, udal langileen lantaldea	55
Zentral hidroelektrikoko makinista	45
Suhiltzailea, udal langileen lantaldea	41
Zaindaria, hiriko udal telefono-sarea	22
Lorategiak, udal langileen lantaldea	21
Langilea, udal langileen lantaldea	19
Kaleak, udal langileen lantaldea	18
Estoldak, udal langileen lantaldeak	16
Maisua, hainbat sail	14
Igeltseroa, udal langileen lantaldeak	13
Diru-biltzailea, hainbat sail	12
Garbiketen arduraduna	11
Komunetako arduraduna	10
Iturgina, udal langileen lantaldeak	10
Guztira	570

Kasu honetan 817 espediente dira eta kasu bakoitza pertsonal jakin bati dagokion bizitzaren historia da. Bizitza hori une hartako baldintzek markatu zuten. Matxinatuen aurkako ideiak izateagatik eta euskal nazionalistak, errepublikaren aldekoak edo sozialistak izateagatik akusatu zituzten. Kasuak frogatu gabe zeuden eta espediente asko

atzeraeraginezko izaerarekin salatu zituzten, kasuan kasuko, 1934ko urrira edo 1931ko apirilaren 14ra arteko atzeraeraginarekin.

Saio zigortuenen artean nabarmenenak hauexek dira: langile udaltzainak, kale garbitzaileak, jagoleak, bideetako langileak, udal musika-bandako musikariak eta suhiltzaileak.

Bigarren Errepublikan politikoki gehien nabamentzen ziren kolektiboak izateaz aparte, zigor horiek ezartzeko arrazoia aztertzeko ikerketa zehatzagoa behar da, aldez aurreko lanbaldintzak eta tradizioak kontuan hartuz.

Adibide gisa Ignacio Usabiaga Martiarena udaltzainaren kasua aipa dezakegu. Langile horren espedientea 1936an ireki eta 1943an itxi zen. Kasu honetan argi ikusten da auzipetzeekin erabiltzen ziren prozedura eta jokatzeko era zein ziren.

Ignacio Usabiaga Martiarenari 1936 hiruhilabetekoan kendu zioten kargua. 29 urte zituen eta Arroka 3, 3. helbidean bizi zen. Udaltzaingoaren kidegoan aritu zen lanean 1934ko maiatzetik 1936ko irailera arte. Gerra amaitu ondoren, 1939ko irailaren 22an, kargua uzteko espedientea berrikusteko eskatu zuen.

Udalak erabakia hartu baino lehen, behin-behineko udaltzainburu zen Agustin Sagastiren txosten hau bidali zuen:

“Neronek lortutako datuen arabera, Ignacio Usabiaga Martiarena jauna, 29 urte, udaltzain ohia, ezkondua, informatu didatenez, beti jokabide zuzena izan duen gizasemea da, Udal Dendarien batasunean afiliatuta zegoen, ideia ezkerzaleak ditu, *Frente Popularraren* aldekoa zen. 1936ko abuztuaren erdian, gorriek hiria okupatu zuten bitartean, *Frente Popularraren* lanean aritu zen hornidura-azokan esnea banatzen, *Frente Popularraren* baimenarekin, eta udaltzain lana utzi egin zuen. Hiria utzi eta Bilbora alde egin zuen, 1936ko irailaren 12an, eta han, Antonio Aguirre lehendakariaren brigada motorizatuan lanean aritu omen zen.

Berorrek jakin dezan.

Jainkoak urte askotan gorde zaitzala. garaipenaren urtea.

Donostia, 1939ko urriaren 30.”

Hona hemen udalaren erabakia:

“Jaun txit gorena, 1936ko irailaren 12ra arte, hau da, gorrien eta separatisten hordek hiria ebakuatu zutenean alde egin eta euren lanpostua utzi arte, bete zituzten karguetatik botatzea eragin zuten espedienteak berrikusteko eskatuz, udaltzain ohiek bidalitako eskabideak aztertu ditugu [...]tartean Ignacio Usabiaga Martiarenarena zegoen,...]

Ondorioz, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gobernu Zibilaren nahitaezko xedapenen arabera, eta batez ere 1936ko urriaren 3ko 93. Dekretuan zorrozki

ezarritakoa betez, berrikusketa eskatzen dutenei urte bereko irailaren 12ra arte bete zitzuten karguak kentzea erabaki dugu, arrazoi erabat justifikatu oinarritura, zeren zerbitzua uztea akats larria baita, eta, gainera, kasu gehienak *Mugimendu nazional aintzagarririan* printzipioetan oinarritutako erregimenaren aurkakoak direla kontuan hartuta.

Zerbitzua uztea, beti ere, akats oso larria dela eta are gehiago, lanpostua utzita errekursoa jarri dutenek *Frente Popularreko* agintarien inspirazioak jarraituko zituztela jakinda, hau da, Espania Askatzeko Gurutzada Aintzagariaren printzipioen erabateko aurkako jarrera adierazten dutela aintzat hartuta

Lanpostutik egoztea eragin zuten espedienteak berrikustea eskatzea nahikoa ez dela kontuan hartuta, zeren espediente horietan ez baitira lanpostua uzteko arrazoik justifikatzen. Beraz, udalak hartu zuen erabakia erabat justua izan ez zela adierazten duen arrazoirik ez da azaltzen; eta, bestalde, errekurso-egileen argudioen bidez, haien jokaeraren ondorioz *Mugimendu nazional aintzagariaren* aurka egotearen bidezko susmoa arteztea onartezina da.

Zerbitzua uztea ez dela justifikatzen kontuan hartuta, indarrean dagoen Donostiako Udal Txit Goreneko funtzionario eta langileen erregelamenduan, 81. artikuluan zehatz-mehatz adierazten denez, lanpostua uzten den kasuetan, langilea kargutik kenduko da.

Gobernatze batzordeak honako Jaun Txit Goren horri hau proposatzeko ohorea du:

Udaltzain ohiei dagozkien espedienteak berrikusteko eskabidea ez onartzeko erabakia hartza [...]tartean Ignacio Usabiaga Martiarenarena]

Ondorioz, aipatutako udaltzain ohiek Udal Batzordeak dagokion egunean legez eta bidez hartutako erabakia onartu behar dute

Donostia, 1939ko azaroaren 4an.

1939ko azaroaren 8ko Udalaren Osoko Bileran onartua. Idazkariak sinatuta."<sup>13</sup>

Beste adibide bat. Kasu honetan erabakia berriro onartzea izan zen (oso kasu gutxi dira). Javier Amezqueta Apezteguia, txofer-laguntzailearena da. Lanpostua uztearen ondoriozko espediente hori 1936an ireki zen, eta 1948an, azkenik, berriro onartzea erabaki zen. Kasu honen bidez, erregimen berriak nola jokatzen duen ikus daiteke eta, halaber, auzipetze prozedura osoa aztertzeko aukera daukagu.

Hona hemen historial osoa:

---

13 AMSS, exp H- 2404-28

1. Lanpostua uzteari buruzko jakinarazpena. Donostiatik alde egin zuen baimenik edo lizentziarik gabe. 1936ko urriaren 20an. Jose Mugica alkateak eta bi lekukok sinatuta.

2. Deklaratzeko deialdia. 1936ko urriaren 30ean, azaroaren 2an, goizeko 11tan aurkezteko. instruksioko epaileak sinatuta.

3. Udaltzainaren jakinarazpena, Javier Amezqueta etxean ez dagoela adieraziz. Bi lekukok sinatuta. Datarik gabe.

4. Lanpostua utzi eta etxean ez zegoela adierazten duen expedientea eta kargu-orria obrabatzordeko idazkaritzan utzi dituela eta aurkezteko bost eguneko epea duela adierazten duen , jakinarazpena. Entregatutako bi lekukok eta instruksioko epaileak sinatuta. 1936ko azaroaren 1ean.

5. Langileari kargua kentzen zaio indarrean dagoen araudiaren arabera. 1936ko abenduaren 30ean, Jose Mugica alkateak sinatuta: "Zerbitzua uztearen akatsean erori ondoren, horretarako irekitako expedienteean frogatu denez, eta haren emaitza eta Estatuaren Gobernuaren abenduaren 3ko 93. Dekretuaren eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Gobernadore zibil jaun txit gorenaren hilabete bereko 12ko zirkularren edukia kontuan hartuta, burutzat naukan Udala, hile honetako 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen kargutik kentzea eta, ondorioz, zerbitzutik behin betiko egoztea.

Berorrek jakin dezan eta dagozkion ondorioetarako. Jainkoak urte askoa  
gorde zaitzala

Donostia, 1936ko abenduaren 30ean.

Jose Mugica, alkatea.

6. 1939ko abenduaren 3an, Javier Amezquetak honako idatzi hau bidali zion gobernadorezibilari:"Javier Amezquetak adierazten du, udalak ureztatzeko ibilgailuan zuen lanpostua uztegatik kargutik kentzen zutela jakinarazi ziola, eta aurten martxoko 9ko aginduak ematen eskubidea erabiliz, berrikusteko errekursoa egiten dut, Gobernazioko Ministerioan, berorren bidez, forma-akatsa eta jarduketa akatsak alegatuz. Aurrekariak: soldadu izan nintzen hiru urtean, Donostiako posizio-artilleria errejimentuan . Gure armada aintzagarría Santanderren sartu zenean, gorriei kendutako kamioi bat hartu eta zerbitzu italiarraren esku utzi nuen. Saruentua izan nintzen abiazioko bateria antiaereoan, honekin batera doazen eta Miguel Rabell Cañadas tenienteak eta Antonio Noriega kapitainak egindako agirietan ziurtatzen dudanez. Halaber, beste agiri bat aurkezten dut, Abiazioko Estatu Nagusiko buruak 1938ko maiatzaren 1ean Zaragozan egindakoa. Inoiz ez naiz politikan aritu eta nagusiek ez didate inoiz ezer arteztu nire eginbeharra ez betetzeagatik. Nire kontra adierazten den kargugabetzean ez zegoen prozesu-formaltasunik, ez lehenago, ez geroago. 108 Dekretuaren IV. kapituluan ezartzen diren arauak ez dira bete, eta expedientea bideratu zen Donostiako alkate jaunaren ofizioan, inork ez nau entzun eta ez dut inolako deklaraziorik egin juezaren aurrean. Egia esan, ez da inolako expedienterik egin, zeren horrelako jarduerei ezin baitzaie horrela deitu, legezko defentsari dagozkion funtsezko gomendio guztiak hausten baitituzte. Beraz, ni kargurik gabe uzteko erabakiari nulua eta lege-baliorik gabekoa deritzot, horregatik, jaun txit gorena, denboran eta

forman aurkeztu ondoren errekursoa onar dezazun eta Gobernazioaren Ministerioan aurkez dezazun erregutzen dizut, aipatutako helburuarekin. Horrela, jarduera berrieta nire justifikazioa ezagutzeo eta demostratzeko, hiri honetan bete izan dudan kargua berreskuratu ahal izateko. Donostia, 1939ko abenduaren 3a, garaipenaren urtea”.

7. Langileak eskatutakoa kontuan hartzen da eta galdeketa-orria betetzeko eskatzen zaio. Orri horretan datu hauek azaltzen dira: izena eta abizenak, kargua eta 1936ko uztailaren 18ko altxamendua izan zenean non zegoen zehazteko, “mugimendu nazional aintzagarriaren” aldekoa zen, gobernu marxistaren aldekoa zen, uztailaren 18az geroztik betetako zerbitzuak, zein alderdi politikotan edota erakunde sindikaletan parte hartu zuen, masoia den ala ez eta, azkenik, esandakoa egiaztatzen duten lekuoak.

8. Eskuz eginiko zinpeko deklarazioan Javier Amezqueta jaunak dioenez: “argiteria publikoetako kamioiaren eta ureztatzeko 1. ibilgailuaren txofera zen, Donostiara irailaren 15ean etorri zen gorrien zonatik. Uztailaren 18tik irailaren 12ra, bere nagusiek aginduta. Bere eginkizuna ureztatzeko ibilgailuaz ospitale eta kliniketara ura eramatea zen. Abiazioan zerbitzatzen egon zen mugimendu nazionalaren alde, 1936ko irailaren 22tik 1939ko uztailaren 15era arte. Ez zuen zerbitzurik egin gobernu marxistarentzat, bakarrik Bilbora joandako udalari lagundu zion hildegiko kamioia gidatzen. Masoneriaz ez daki ezer (“ez dut horrelako sektarik ezagutzen”) eta lekuo gisa lankide bi aurkeztu zituen.

9. Horrekin batera doan Guardia Zibilaren txostenean hauxe irakur daiteke: “jokaera zuzeneko gizasemea da eta aurrekari onak ditu, ezkerzalea da ideologiaz, baina ez dakigu sindikaturen batean parte hartu zuen gorriak nagusi izan zirenean.”

10. Falangeren txostenak honako hau dakar: “Mugimendu Nazionala sortu aurretik ez zuen lotura politikorik. Hiria gorrien eraginpean egon zenean, udalaren kamioi ureztagailuaz hirian zehar ospitaletarako ura banatzen aritu zen, eta tropa nazionalak hirian sartu zirenean, Bilbora alde egin zuen, aldi berean bertara alde egin zuen Udalaren aginduak betez. Donostiara 1937an itzuli zen Laredotik eta, berehala, abiazioan izena eman zuen boluntario eta sarjentu izatera iritsi zen, zenbait frentetan burututako ekintzengatik. Jokabide ona du gizarte, moral eta erlijio aldetik.”

11. Udaltzaingoaren txostenean hauxe adierazten da: “Pertsona oso langilea da eta ezin hobe jokatu zuen eta ez zitzaison inoiz adierazpen politikorik egiten ikusi.” (1943ko otsailaren 8an).

12. 1948ko ekainaren 24ko azken erabakian, frogatutzat jotzen da lanpostua utzi zuela, nazionalen armadako abiazioan parte hartu zuela sarjentu gisa, ezin izan dela frogatu inolako joera politikorik duenik eta, ondorioz, erabakitzan da, sor daitekeen lehenbiziko plaza betetzeko eskubidea duela eta aldez aurretik zeuzkan eskubideak galtzen dituela.

13. Argi geratzen da, langileari berehala kentzen diotela kargua, juezaren aurrean hitz egin gabe eta, horregatik, kasua berrikusteko eskatzen da, forma-akatsa alegatuz, prozedura erabat zuzengabekoa izaki.<sup>14</sup>

---

14 AMSS, esp H- 02245- 01

Txostenen kasuak eta haien edukiak garbi azaltzen dute kontrol sozialaz arduratzen ziren erakundeak zein ziren eta haien estiloa zein zen; gainera, argi geratzen da erakundeok garbiketa-mekanismoaren nukleoa zirela.

Estate baterako, Udaltzaingoaren Bulego Nagusiak aurkezten duen eta 1937ko azaroaren 2an alkate jaunari bidalitako txosten batean, honako hau esaten da Pedro Arbelaitz Artola, Easo kalean bizi zen 56 urteko gizon ezkondu eta donostiarri buruz:

"Hau separatista lotsagabea da. Hernaniko tranbiako obretako langilea zen eta bota egin zuten lanetik Donostia liberatu zenean, muturreko separatista zelako. Beraz, enpresa hartan, langileen garbiketan sartzen dute izandako jokabidearengatik eta Espainiaren aurkakoa izateagatik, eta udaletik kanpora botatzen dutenean oparia egiten diote... Lanbide ofiziala emanez! Eta, horrez gain, bizi den etxeiko atezaaintza du, hango jabea separatista delako, eta horregatik lortu zuen postua, "familia politiko berekoa" izateagatik. Azalpenik gabe... (Lapizen, "Esp. gabe")<sup>15</sup>

Bulego nagusi bereko beste txosten batean, espedientatua honako hau da: Pedro Sagarzazu Alzola, 31 urte, ezkondua, hernaniarra, eta txostenak hauxe dio:

"Erreketetzat jotzen da, pertsona ona da" (Lapizen, "Ondo")

Esandakoari buruz, aipatzea merezi du, gordintasuna eta errealsimoa erakusten dituelako, Manuel Gabarain mediku donostiarren liburu autobiografikoa *Así asesina Falange*<sup>16</sup>. Liburu horretan, egileak 1936ko uztaileko matxinadak eragindako gerrako bi aldeetako gaixoei sorospena ematen izandako esperientzia kontatzen du. Gero, kontatzen duenez, Falangek preso hartu zuen, baina "ero-plantak eginez" atxilotuta zegoen Bulebarreko sototik ateratzea lortzen du. Zein ziren atxilotzeko arrazoia? Harrapatu zuenak zioenez, Aizpurua, Donostiako falangista ospetsuaren ahizpari buruzko komentario bat egiteagatik atxilotu zuten. Badakigu aitzakia besterik ez zela. Hirian gelditu zirenen artean izua sortzea zen helburua, nola jokatu behar zuten jakin zezaten.

Mediku liberalak argi eta garbi salatzen du ankerkeria. Beraz dioenez, une artan mediku gehienak eskuinekoak ziren eta alde edo ez-ikusiarena egin zuten. Atxilotu zutenean, Bulebarreko Opera tabernako sotora eraman zuten eta, han, beste bederatzi gizon eta berrogeita hamar urte inguruko emakume batekin egon zen. Denak langileak ziren. Narrazioaren parte ikaragarriena lau lagunen heriotzarena da. Hildakoak Donostiako Udaleko bi kale garbitzaile, argiketari bat eta tabernako langilea ziren.

---

15 AMSS, esp H- 03721-19

16 Gabarain, M: "Así asesina Falange" Ed. Pampa, 1938

### **3.1.3 Garbiketa-espedienteak**

Garbiketa-espedienteetan udaleko langile depuratuen historiala biltzen dute. Lanpostua utzi ez bazuten ere, langileok susmagarritzat jotzen zituzten edota ez zuten uste erregimenaren alde nahikoa nabarmentzen zirenik.

Garbiketa-espedienteen azterketan, eranskinean adierazten denez<sup>17</sup>, eta aurreko kasuan bezala, expedienteetan bildu dugun informazioa hauxe da:

- 1- Expedientatuaren izena eta abizenak.
  - 2- Sexua.
  - 3- Langilearen saila.
  - 4- Langilearen kargua
  - 5- Expedientearen iraupena, 1936-1940 bitartean.
  - 6- Leporatzen zaizkion karguak.
  - 7- Administrazio-espedientea. Hartutako azken erabakia.
  - 8- Expediente judiziala, kondena.
  - 9- Gerran parte-hartzea.
  - 10- Heriotzak.
  - 11- Kodea.
  - 12- Iturriak.
- 
- 1- Izena eta abizena. 15 pertsonaren bigarren abizena falta da.
  - 2- Sexua. Sexuaren arabera, 776 gizonezko eta 30 emakume dira.
  - 3, 4 - Langileari dagozkion sailaren eta karguaren araberako banaketa honako hau da:<sup>18</sup>

Garbiketa. Lanbideen eta kidegoen araberako azken azterketa	Langileen kopurua
Administratzalea, hiltegi publikoak	1
Administratzalea, Artikutza	1
Administratzalea, arrandegia	1
Administratzalea, iparraldeko tren geltokiko legartegia	1
Igeltsroa, udal langileen lantaldea	10
Estoldak, udal langileen lantaldea	5
Biltegiak, udal langileen lantaldea	2
Laguntzailea, hainbat sail	12

17 1. eranskina, 1. taula.

18 Urdinez, langileak; gorriz, buruak eta erdi-mailako arduradunak, eta berdez, bestelako profesionalak.

Kutxazain laguntzailea, udal arielak	1
Laborategiko laguntzailea, Higienerako Udal Institutua	1
Laguntzailea, tailerra	1
Laguntzailea, Estatistika Bulegoa	1
Laguntzailea, hainbat sail	4
Langileburuaren laguntzailea, udal langileen lantaldea	1
Txoferaren laguntzailea	3
Kale garbitzaileak, garbiketa kidegoa	74
Suhiltzaileak, udal langileen lantaldea	42
Kabua, udaltzaingoa	2
Kabua, arielen kidegoa	6
Kabua, kidegoa, Higienerako Udal Institutua	1
Kaleak, udal langileen lantaldea	26
Bideak, udal langileen lantaldea	77
Langileburua, hiriko udal telefono-sarea	2
Pintoreen langileburuak, udal langileen lantaldea	1
Arotza, udal langileen lantaldea	14
Carretero, udal langileen lantaldea	1
Zaindaria, hiriko udal telefono-sarea	9
Txofera	2
Kobratzailea, hainbat sail	9
Emagina, Ongintza	2
Anbulantzia gidaria	4
Atezaina, hainbat sail	4
Desinfektatzea, Higienerako Udal Institutua	2
Zuzendaria, hiriko udal telefono-sarea	1
Zuzendaria, Lan Eskola	1
Zuzendaria, higienerako udal institutua	1
Argiketaria, argiteria publikoak	13
Arduradunak, ama eskolak, hondartzak, komunak, bainu etxeak	55
Arduraduna, bainu etxeak	1
Arduraduna, zapalgailuak, haztegiak, komunak, bainu etxeak	5
Udaltzaina	65
Landazaina	18
Errementaria, udal langileen lantaldea	8
Fondoen kontu-hartzailea	1
Zerga eta tasen bulegoko ikertzailea	1
Lorategiak, udal langileen lantaldea	15
Hiriko udal telefono-sarearen burua	1

Estatistika bulegoko burua	1
Ogasun burua	1
Udal arieletako burua	1
Laborategi burua, higienerako udal institutua	1
Bulego-buru eta tasen letradua	1
Albaitari burua, higienerako udal institutua	1
Jornalaria. Hiltegi publikoak	5
Lakiolaria, higienerako udal institutua	1
Iturginen langileburua, udal langileen lantaldea	1
Iturgina, udal langileen lantaldea	3
Maistra	51
Maisua	17
Zapalgailu makinista, udal langileen lantaldea	2
Makinista, Antzoki Nagusia eta Higienerako Udal Institutua	2
Mekanikoa, hiriko udal telefono-sarea	7
Mekanikoa, Arrandegiko garbiketa	1
Medikua, Ongintza	9
Medikua, Sorospen Gela	7
Medikua, Lan Eskola	2
Ur kontagailua, Artikutza	1
Morroia, Arrandegia	2
Musikaria, Udal Musika Banda	8
Ofiziala, hainbat sail	11
2. Mailako ofiziala hazienda	1
2. Mailako ofiziala hiltegi publikoak	1
3. Mailako ofiziala hiltegi publikoak	1
Idazkaritzako ofiziala, Lan Eskola	1
Artikutzako Uren Bulegoko ofiziala	1
Ofizial burua, Gordailuzaintzako langileak	1
Laborategiko ofiziala, Higienerako Udal Institutua	1
Ordenantza, hainbat sail	2
Ordenantza, San Telmo	1
Paseoak eta zuhaitzak, udal langileen lantaldea	22
Peritu elektrikoa, hiriko udal telefono-sarea	1
CATEKO langileak	3
Behin-behineko langileak, hiriko udal telefono-sarea	16
Pintorea, udal langileen lantaldea	7
Atezaina	1
Praktikanteak, sorospen gela	7

Diru-biltzailea, udal arielak	15
Diru-biltzailea, udal hiltegiak	4
Diru-biltzailea, hiriko udal telefono-sarea	2
Madrileko udaleko ordezkarria	1
Idazkaria eta maisua, Lan Eskola	1
Ehorzlea	6
Zuzendariordea eta maisua, Lan Eskola	1
Ordezkarria, ama eskolak	1
Telefonista, hiriko udal telefono-sarea	23
Diruzaina, Gordailuzaintzako langileak	1
Tornularia, udal langileen lantaldea	1
Albaitaria, Higienerako Udal Institutua	3
Jagolea	32
Eskola bisitaria	1
	803
Hiru langile falta dira: Arielen saila (1), Higienerako Udal Institutua (1) eta Agentzia Exekutiboa (1), eta ez dakigu lanpostu zehatz zaizzen.	3
Guztira	806

Kasu honetan ere, depuratuen guztizkoaren % 73 langileak dira, % 14 buruak eta erdi-mailako arduradunak dira eta gainerako % 13 bestelako profesionalei dagokio. Bakoitzari dagokion sektorea kolorez markatuta dago.

Hemen ikusten denez, buruen eta erdi-mailako arduradunen eta bestelako profesionalen kontrola handiagoa da. Kasu honetan nabarmena da espaldentatutako emakume langileen kopurua, hots: 147; horietako 51 maistrak dira. Atal honetako kapitulurik garrantzitsuenetako da, zeren emakume horiek nazionalistak eta ezkertiarrik izateagatik salatu baitzitzuten eta erregimen berriarentzat zalantzarik gabeko eginkizuna baitzen eskola publikoa depuratzea. Geroago, kasu jakin bat aztertuko dugu.

Emakumeen lana	Kopurua
Emagina, ongintza	2
Arduradunak, ama eskolak, hondartzak, komunak, bainu etxeak	55
Maistra	51

Behin-behineko langileak, hiriko udal telefono-sarea	16	
Telefonista, hiriko udal telefono-sarea	23	
Guztira	147	%18,28

#### 5- Espedientearen iraupena, 1936-1940 bitartean:

Hemen, lanpostua uztearen ondoriozko expedienteetan ez bezala, expediente gehienak 1938an ireki ziren, 305 kasu. 1936an 171 kasu daude, 1937an, 77, eta 1939 kopurua txikiagoa da: 14 kasu. Ikus daitekeenez garbiketa-prozesua gogorragoa da 1938an, 1937ko Bateratze Dekretuaren ondoren eta Bizkaiko frontea hautsi eta gero. Harrezkero, erregimen berriaren agindua gero eta gogorrago ezartzen da.

#### 6- Leporatzeko karguak.

Oro har, leporatutako karguak *Frente Popularrari* laguntzea, ideologia nazionalista edo ezkertiarrarizatea, UGT, CNT edo Eusko Langileen Alkartasuna sindikatuetan parte hartzea. Hori adierazteko, honako aipamenak egiten dira: "ezkerreko prentsa irakurtzea", "oso patriota ez izatea", "mugimendu nazional aintzagarriaren printzipioak ez onartzea", "gorria izatea", "euskal nazionalismoaren aldekoa izatea", "ezkerreko sindikaturen batean afiliatuta egon izatea", "La Voz de Guipúzcoa" irakurtzea", "miliziano gisa aritza gerran", "komunitarioa izatea", "sindikatu nazionalista bateko kidea izatea"... etc.

#### 7- Azken erabakia

Garbiketa. Lanbideen eta kidegoen araberako azken azterketa	Langile kopurua	Azken erabakia
Administratzalea, hiltegi publikoak	1	Kargua berreskuratzea
Administratzalea, Artikutza	1	Kargua berreskuratzea
Administratzalea, Arrandegia	1	Kargua berreskuratzea
Administratzalea, iparraldeko tren geltokiko legartegia	1	Kargua berreskuratzea
Igeltseroa, udal langileen lantaldea	10	Kargua berreskuratzea
Estoldak, udal langileen lantaldea	5	Kargua berreskuratzea
Biltegiak, udal langileen lantaldea	2	Kargua berreskuratzea
Lagunzailea, hainbat sail	12	Etetea (1)
Kutxazain lagunzailea, udal arielak	1	Kargua berreskuratzea

Laborategiko laguntzailea, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Laguntzailea, tailerra	1	Kargua berreskuratzea
Laguntzailea, Estatistika Bulegoa	1	Kargua berreskuratzea
Laguntzailea, hainbat sail	4	Kargua berreskuratzea (3), etetea (1)
Langileburuaren laguntzailea, udal langileen lantaldea	1	Kargua berreskuratzea
Txoferaren laguntzailea	3	Kargua berreskuratzea
Kale garbitzaileak, garbiketa kidegoa	74	Egoztea (1), besteak, kargua berreskuratzea
Suhiltzaileak, udal langileen lantaldea	42	Kargua berreskuratzea
Kabua, Udaltzaingoa	2	Kargua berreskuratzea
Kabua, arielen kidegoa	6	Kargua berreskuratzea
Kabua, kidegoa, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Kaleak, udal langileen lantaldea	26	Kargua berreskuratzea, egoztea (1)
Bideak, udal langileen lantaldea	77	Egoztea (3), etetea (2), besteak, kargua berreskuratzea
Langileburua, hiriko udal telefono-sarea	2	Kargua berreskuratzea
Pintoreen langileburuak, udal langileen lantaldea	1	Kargua berreskuratzea
Arotza, udal langileen lantaldea	14	Kargua berreskuratzea
Orgaria, udal langileen lantaldea	1	Kargua berreskuratzea
Zaindaria, hiriko udal telefono-sarea	9	Kargua berreskuratzea (8) eta baja 1, 1938ko otsailaren 7 baino lehen
Txofera	2	Kargua berreskuratzea
Kobratzailea, hainbat sail	9	7 kargua berreskuratzea, etetea (2)
Emagina, Ongintza	2	Kargua berreskuratzea
Anbulantzia gidaria	4	Kargua berreskuratzea
Atezaina, hainbat sail	4	Kargua berreskuratzea
Desinfektatzea, Higienerako Udal Institutua	2	Kargua berreskuratzea
Zuzendaria, hiriko udal telefono-sarea	1	Kargua berreskuratzea
Zuzendaria, lan-eskola	1	Kargua berreskuratzea
Zuzendaria, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Argiketaria, argiteria publikoak	13	Kargua berreskuratzea
Arduradunak, ama eskolak, hondartzak, komunak, bainu etxeak	55	Kargua berreskuratzea, egoztea (1)
Arduraduna, bainu etxeak	1	Kargua berreskuratzea
Arduraduna, zapalgailuak, haztegiak, komunak, bainu etxeak	5	Kargua berreskuratzea

Udaltzaina	65	Kargua berreskuratzea
Landazaina	18	Kargua berreskuratzea
Errementaria, udal langileen lantaldea	8	Kargua berreskuratzea
Fondoen kontu-hartzalea	1	Kargua berreskuratzea
Zerga eta tasen bulegoko ikertzailea	1	Kargua berreskuratzea
Lorategiak, udal langileen lantaldea	15	Kargua berreskuratzea
Hiriko udal telefono-sareko burua	1	Kargua berreskuratzea
Estatistika bulegoko burua	1	Kargua berreskuratzea
Ogasuneko burua	1	Kargua berreskuratzea
Udal arieletako burua	1	Nahitaezko erretiroa
Laborategiko burua, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Bulego-buru eta tasen letradua	1	Kargua berreskuratzea
Albaitari burua, higienerako udal institutua	1	Kargua berreskuratzea
Jornalaria. Hiltegi publikoak	5	Kargua berreskuratzea
Lakiolaria, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Iturginen langileburua, udal langileen lantaldea	1	Kargua berreskuratzea
Iturgina, udal langileen lantaldea	3	Kargua berreskuratzea
Maistra	51	Etetea (9), egoztea (1), besteak, kargua berreskuratzea Egoztea (3), etetea
Maisua	17	(1), besteak, kargua berreskuratzea
Zapalgailu makinista, udal langileen lantaldea	2	Kargua berreskuratzea
Makinista, Antzoki Nagusia eta Higienerako Udal Institutua	2	Kargua berreskuratzea
Mekanikoa, hiriko udal telefono-sarea	7	Baja 1, 1938ko otsaila baino lehen
Mekanikoa, Arrandegiko garbiketa	1	Kargua berreskuratzea
Medikua, Ongintza	9	Kargua berreskuratzea
Medikua, Sorospen Gela	7	Kargua berreskuratzea
Medikua, Lan Eskola	2	Kargua berreskuratzea
Ur kontagailua, Artikutza	1	Kargua berreskuratzea
Morroia, arrandegia	2	Kargua berreskuratzea
Musikaria, Udal Musika Banda	8	Kargua berreskuratzea
Ofiziala, hainbat sail	11	Kargua berreskuratzea
2. mailako ofiziala hazienda	1	Kargua berreskuratzea
2. mailako ofiziala hiltegi publikoak	1	Nahitaezko erretiroa
3. mailako ofiziala hiltegi publikoak	1	Kargua berreskuratzea
Idazkaritzako ofiziala, Lan Eskola	1	Kargua berreskuratzea
Artikutzako Uren Bulegoko ofiziala	1	Kargua berreskuratzea

Ofizial burua gordailuzaintzako langileak	1	Kargua berreskuratzea
Laborategiko ofiziala, Higienerako Udal Institutua	1	Kargua berreskuratzea
Ordenantza, hainbat sail	2	Kargua berreskuratzea
Ordenantza, San Telmo	1	Nahitaezko erretiroa
Paseoak eta zuhaitzak, udal langileen lantaldea	22	Kargua berreskuratzea
Peritu elektrikoa, hiriko udal telefono-sarea	1	Kargua berreskuratzea
CATeko langileak	3	Kargua berreskuratzea
Behin-behineko langileak, hiriko udal telefono-sarea	16	4 baina 1938ko otsailaren 7a baino lehen
Pintorea, udal langileen lantaldea	7	Kargua berreskuratzea
Atezaina	1	Kargua berreskuratzea
Praktikanteak, Sorospen Gela	7	Kargua berreskuratzea
Diru-biltzailea, udal arielak	15	Etetea (2), besteak, kargua berreskuratzea
Diru-biltzailea, udal hiltegiak	4	Kargua berreskuratzea
Diru-biltzailea, hiriko udal telefono-sarea	2	Kargua berreskuratzea
Madrileko udaleko ordezkaria	1	Kargua berreskuratzea
Idazkaria eta maisua, Lan Eskola	1	Kargua berreskuratzea
Ehorzlea	6	Kargua berreskuratzea
Zuzendariordea eta maisua, Lan Eskola	1	Kargua berreskuratzea
Ordezkaria, ama eskolak	1	Kargua berreskuratzea
Telefonista, hiriko udal telefono-sarea	23	Baja 1, 1938ko otsailaren 7a baino lehen, etetea (1), egoztea (1)
Diruzaina, gordailuzaintzako langileak	1	Kargua berreskuratzea
Tornularia, udal langileen lantaldea	1	Kargua berreskuratzea
Albaitaria, higienerako udal institutua	3	Kargua berreskuratzea
Jagolea	32	1 nahitaezko erretiroa, etetea (1)
Eskola bisitaria	1	Amaitzea
	803	Kalkuluak eta ehunekoak egiteko erabilitako guztizkoa
3 langile falta dira: Arielen Saila (1), Higienerako Udal Institutua (1) eta Agentzia Exekutiboa (1), eta ez dakigu lanpostu zehatza zein zen.	3	
Guztira	806	

Hartutako azken erabakian 751 kasutan kargua berreskuratzea erabaki zen, hau da, % 92, 9, 21 kasutan behin betiko amaitzea, 5 nahitaez erretiratzea, 21 kasutan lana eta soldatu etetea, 2 berriro onartzea eta 1938ko otsailaren 7a baino lehenagoko 7 kasutan baja ematea. Lauki batean ez dago daturik.

#### 8- Espediente judiziala, kondena.

41 langile espedientatu zituzten eta horietako 11 kartzelara kondenatu zituzten.

#### 9- Gerran parte hartza.

Gerran 9 langilek parte hartu zuten.

#### 10- Heriotzak.

Frentean pertsona 1 hil zen, 3 fusilatu egin zituzten eta 1 kartzelan hil zen.

#### 11- Kodeak.

6 expedientek ez daukate koderik eta expediente 1 falta da.

#### 12- Iturriak.

1. eranskineko 1. taularen oinean azaltzen dira.

### **3.1.4 Garbiketa-espedienteen zenbait kasu.**

Atal honetan, kontsultatutako 807 kasuak kontuan hartuta, sail zigortuenak hauexek dira: bideetako langileak, kale garbitzaileak, udaltzainak, arduradunak eta maistrak.

Zentzu horretan, eta lanpostua uztearen ondoriozko expedienteekin alderatuz, garbiketa selektiboa dela ikus daiteke, sail berriak hartzen dituena, batez ere, emakume arduradunak, maistrak eta telefonistak.

Eta aurreko kasuan bezala, arrazoiak sakonago aztertu beharko badira ere, ondoriozta daiteke helburua gizartearen kontrolarekin lotutako sektoreak ondo hautatzea da (komunikazioa, langileen buruak eta jagotea), eta, aldi berean, langileen sektore menderakaitzenak zigortu nahi zituzten.

Garbiketa, langile-kopuruaren arabera. Saio zigortuenak	Langile kopurua	
Bideak, udal langileen lantaldea	77	% 9,54
Kale garbitzaileak, garbiketa kidegoa	74	% 9,16
Udaltzaina	65	% 8,05
Arduradunak, ama eskolak, hondartzak, komunak, bainuetxeak	55	% 6,81
Maistra	51	% 6,31
Suhiltzaileak, udal langileen lantaldea	42	% 5,20

Jagolea	32	% 3,96
Kaleak, udal langileen lantaldea	26	% 3,22
Telefonista, hiriko udal telefono-sarea	23	% 2,85
Paseoak eta zuhaitzak, udal langileen lantaldea	22	% 2,72
Landazaina	18	% 2,23
Maisua	17	% 2,10
Behin-behineko langileak, hiriko udal telefono-sarea	16	% 1,98
Lorategiak, udal langileen lantaldea	15	% 1,85
Diru-biltzailea, udal arielak	15	% 1,85
Guztira	548	% 67,83
Besteak,	257	% 32,17
Guztizko absolutua	806	

Orain garbiketa-espediente pertsonal jakin bat aztertuko dugu: Viteri eskoletako maistra zen Maria Beneite Leturiarena. Azpimarratutako testua jatorrizkoa da. Irakaskuntzan izandako garbiketak bereiz tratatzea merezi du, kontrolari dagokionez, oso garrantzitsua izan baitzen, beti ere, azaltzen dugun gainerako guztia albo batera utzi gabe. Irakaskuntzan gertatutako berariazko garbiketa egiteko "Maisu-maistrak Depuratzeko Batzordea" sortu zen, espedienteak berrikustearaz eta irakasle guztiak ohartarazteaz eta jagoteaz arduratzen zen erakundea.

Mari Beneiteren defentsarako eskuizkribua honako hau da:

"Donostiako Udal Txit Goreneko udal maistra den Maria Beneite andreak Maisu-maistrak Depuratzeko Batzordeak leporatu zizkion karguetatik bere burua defendatzeko orria formalizatu du. Orria neronek jaso dut 1937ko urtarriaren 15ean.

1. kargua: ideologia euskal nazionalista eta emakumeetan afiliatua.

"Ezezko biribila eta eztabaidaezina adierazi nahi dut eta zin dagit Jainkoaren aurrean ez dudala inoiz inolako alderdi politikoan parte hartu eta inoiz ez naizela Emakumeetan afiliatuta egon.

2. kargua: azken hauteskundeetan nazionalistei botoa ematea.

"Erabat garbi utzi nahi dut nik ez diedala azken hauteskundeetan nazionalistei botoa eman. Eta zin dagit Jainkoaren eta Espainiaren izenean eskuineko hautagaiei eman niela botoa. Honekin batera, honako dokumentu hauek aurkezten ditut:

1. Biteri eskola-taldeko, hau da, neu lanean aritu naizen ikastetxean, haurren udal maistra den Asuncion Ferrer andreak sinatutako testigantza. Testigantzan, Emakume elkartean inoiz ez naizela afiliatuta egon frogatzeten duen lekukotasuna azaltzen du, hots: joan den neguan, nik eskolan nituen

bi umeren ama behartu batentzat euskal jantzitegiko arropa-lotea lortzeko, ezin izan nuen bonoa sinatu, zeren, horretarako, derrigorrezkoa baitzen Emakumeen elkartean afiliatuta egotea eta ni ez bainengoen afiliatuta.

2. Nik jarduten dudan eskola-taldeko zuzendari andrearen ziurtagiria, nire jarduera azaltzen duena.

3. Hiriko Done Bikendi parrokiako parroko jaunaren ziurtagiria, parrokiako gaztelaniazko katekesia ematen aritu naizela frogatzen duena, zoritzarrez, eskolan laizismoa derrigorrezkoa zen urteetan.

4. Amezketa (Gipuzkoa) alkatearen testigantza, eskoletan Gurutze Santua berrezartzeagatik egin zen jai erljiotsu eta patriotikoan zuzenean parte hartu nuela frogatzen duena. jaia aipatutako herrian egin zen, hau da, oporrik pasatzen ari nintzen herrian.

5. Nire sentimenduak eta ideologia Espainiarenkiko maitasun sakon eta zintoan oinarritzen direla ekintzen bidez adierazten duen froga eztabaidea da ondorengo hau, hots: erabateko borondatez, interesik gabe eta aberriaren aldeko gogo biziz maistraren lana nire aberria den Espainiari eskaini nion, nire zerbitzua behar zen lekuaren erabiltzeko. Hori guztia Amezketa herriko udalean egin zen aktan adierazita dago. Akta horren kopia ziurtatua, dokumentu honekin batera bidaltzen dut.

Horixe da adierazi nahi dudan guztia, leporatzen zaizkidan karguak deusesta daitezzen. Donostia, 1937ko urtarrilaren 23an. *¡Viva España!* Sinadura: Maria Beneite Leturia<sup>19</sup>.

Beste kasu bat: Agustin Frias Saiz jaunarena. Bost hilabetean lana eta soldata etetea erabaki zuten, 1938ko otsailaren 16an sinatutako garbiketa-kasua da.

Donostiako Udalaren idazpurua daukan orri batean, honako formularioa betearazi zitziona:

“Iritzi politikoa 1931ko apirilaren 14a baino lehen: “Inoiz ez naiz alderdi politiko bateko edo langileen sindikatu bateko kide izan”

Iritzi politikoa 1934ko urria baino lehen: “Udal dendarien batasun nazionaleko kidea izan nintzen”

Iritzi politikoa 1936ko otsailera arte: “Aipatutako elkartea itxita zegoen eta ez nuen beste batean parte hartu”

Iritzi politikoa 1936ko uztailaren 18ra arte: “urte hartako maiatzera arte lehen aipatutako elkarteko baziak izan nintzen; maiatzean kidetza utzi nuen”

Zein elkartea politikotan parte hartu zuen eta noiz izena eman zuen eta noiz laga zuen: “Ez zuen inolako elkartean parte hartu”

---

19 AMSS, esp, H-00169-08

Zein talde sindikaletan parte hartu zuen eta noiz izena eman zuen eta noiz laga zuen: "Udal dendarien batasun nazionalean, ezin dut zehaztu noiz izena eman zuen eta noiz laga zuen. Azken lagatzea, 1936ko maiatzean."

Aurreko adierazpenak berma ditzaketen izena eta helbidea: "Nire filiazio politikoari dagokionez, inork ez du ezer bermatu behar, zeren inoiz ez bainaiz alderdi politiko baten kide izan, eta elkartea sindikalei dagokionez, neure adierazpenak bermatzen du. Nire jokabidea, Iturrino kaleko 17 eta 19 zenbakietako beheko solairuan helbidea duen OOJJ de Nazaret sindikatuak berma dezake."

Jarraian azaltzen dugun kargu-orria zuri buruz egin ditugun ikerketen emaitzetan oinarritzen da. Karguon deskargua eskatzen da, 1938ko otsailaren 28an: Agustin Frias Saiz, oso gorritzat jotzen da eta, jakina, filiazio sozialista du. Dagokion Udal langileen lantaldearen elkarteko presidenteordea izan zen. Sozialismoaren aldeko propaganda egiten aritu zen eta, gainera, "marxista ona izaki", Queipo de Llanok esango lukeen bezala, inoren gauzak bereganatzeko joera zuen, gauzon jabearen nahien kontra, zeren, jendeak dioenez, San Martin azokan lapurretan egin baitzuen eta kidego berekoa zen Miguel Mintegui kabuak estali egin baitzuen. Kabua ere gorria zen eta hiritik alde agin zuen., gorria bera, eta alde egin zuena"

Sinadura: Donostian, 1938ko otsailaren 16an, Garaipenaren II. urtea.  
Francori agurra: "*¡Arriba España!*"<sup>20</sup>

Amaitzeko, oraingoan ere maisuen garbiketaren adibide gisa, 1938ko expediente bat aztertuko dugu. Expediente horretan leku aldatzeko zigorra zuten 5 maisu berronartzeko eskatzen da.

Auzipetutako maisu-maistrak honako hauek dira: Fermina Marculeta Barberia, Maria Teresa Erquicia Arregui, Juliana Isasa Gaubeca, Iciar Arana Iraola eta Marino Rodriguez Saez, denak Donostiako udal maisuak dira.

Hona hemen testua:

"Sustatze Batzordeak zehazki aztertu ditu kasu hauen eta maisu horiek bidalitako dokumentuen baldintzak. Ondorioz, ezin da frogatu euretako inor nazionalista denik eta, alderantziz, Mugimendu Nazional Aintzagarriaren aldeko protestak egin zituztela frogatzen daiteke.

Halaber, errekurtoa egin duten 5 maisuetako inork ez du gure Caudilloa den Franco Generalisimoak ordezkatzen duen kausaren kontrako zerbitzu kaltegaririk egin. Sustatze Batzorde honek ez du ikusi eragozpenik Udalak denen eskariak onar ditzan, hau da, zigor gisa ezarri zitzaien lekualdatzea bertan behera uztea. Sinadura: 1937ko otsailaren 7an"<sup>21</sup>

---

20 AMSS, esp, H- 02615-423

21 AMSS, esp, H- 03785-29

Maria Beneiteren kasuan zein maisu-maistra gehienetan kasuan, kargua berreskuratzea erabaki zen, baina aldez aurretik ezarritako zigorra betez, hau da, lana eta soldata etetea, edo, zenbait kasutan, nahitaezko erretiroa hartzea edota destinoa aldatzea beste zenbait kasutan. Bigarren kasuan ikus daitekeenez, 1938an erregimenak findu egin zuen garbiketa-prozesua eta galderetan 1931ko apirilaren 14ko gertakizunez arduratzen da eta sasoi hori ez litzateke sartu behar garbiketei buruz hitz egiterakoan. Horregatik, argi dago asmoa zein den, hots, Errepublikako garaitik gelditzen ziren hondarrak ezabatzea.

Amaitzeko, 2010eko uztailean, Donostiako burdinazko zubiaren inguruan 7 pertsonaren gorpuzkiak aurkitu zituzten. Aurkitutako bat Millan Zabala zen. Pertsona horrek gauzain gisa lan egiten zuen udalean, eta Kontxako hondartzatik hurbil atxilotu zuten irailaren 27an. Hurrengo egunean fusilatu egin zuten. Harekin batera, beste 6 gizon eta emakume bat atera zituzten lurpetik. langile hori ez da 1. taulan azaltzen; beraz, antzeko kasu gehiago egon zirela ondoriozta dezakegu.

## 4. Azken ondorioak.

- 1- Guztira, 1.623 espediente kontsultatu ditugu Donostiako Udal Agiritegian (lana uztearen ondoriozko 817 espediente eta 806 garbiketa-espediente). Espediente horietako bakoitza zehazki aztertu ondoren eta segimendua egin eta gero ondorioztatzen denez, udaleko 765 langileri kargua kendu zieten behin betiko. Kontratua alde bateko erabakia hartuz hautsi zioten, gehienetan erregimen frankistaren kontra egoteagatik edo Errepublikaren alde egiteagatik. Gainerako 858 langileek berreskuratu egin zuten euren lanpostua, nahitaez erretiratu behar izan ziren, aldi baterako etenak edo antzeko erabakiak jasan behar izan zituzten
- 2- Lanpostua uztearen ondoriozko espedienteen azterketaren arabera, auzipetutako langileen % 91,9 kargutik bota zituzten. Aipagarriena langileen taldea da, guztizkoaren % 81, alegia; eta langileon artean aipagarrienak hauek dira: udaltzainak eta landazainak (100), kale-garbitzaileak (92), zaindariak (71), bideetako langileak (55), eta musikariak (45); azken horiek taldean espaldentatu zituzten. Akusazioak lanpostua uztea eta mugimendu nazional aintzagarriaren aurka egotea dira eta ez zuten euren lana inoiz berreskuratu.
- 3- Garbiketa-espedienteen azterketan, sail zigortuenak honako hauek dira: bideetako langileak (77), kale garbitzaileak (74), udaltzainak (65), arduradunak (55) eta maistrak (51). Maisu-maistren garbiketa aiaptu behar da; guztira 68 izan ziren eta horietako 52k kargua berreskuratu zuten, 13ri lana eta soldata eten zizkioten eta 3 kargutik bota zituzten behin betiko.
- 4- Tropa frankistek, gutxienez, udaleko zazpi funtzionario hil zituzten: Leoncio Aramburu

- (bulegoburua), Fulgencio Frechilla (musikaria), Julian Martinez Valdes (bideak), Cirilo Navalon (udaltzaina), Ramon Ulacia (udaltzaina), Anastasio Tulebras (kale-garbitzailea) eta Millan Zabala (gauzaina).
- 5- Halaber, Errepublika garaian Donostiako Udalean lanean aritu ziren bi zinegotzi hil egin zituzten frankistek: Ceferino Martiarena Recondo (Gijon, 1937ko urrian) eta Luis Iglesias Ansaño (Donostian, 1940ko ekainean). Biak PSOEko afiliatuak ziren.
  - 6- 1936ko altxamendu militarraren ondoren, Donostian gerrak iraun zuen asteetan, milizianoek Donostiako Udaleko 9 funtzionario hil zituzten, erreboltsari frankisten aldekoak izatea egotzita: Pedro Soraluce, Javier Pradera, Felix Salamero, Juan Piñeiro, German Yanguas, Antonio Vivar, Fructuoso Cascon, Emilio Cordero eta Juan Lizarraga. Frente Popularrekoek Errepublika garaian Donostiako Udaleko eskuineko joerako bi alkate hil zituzten: Jose Maria Paternina eta Juan Jose Prado.
  - 7- Aranzadi Zientzia Elkartearen agiriek datuak erkatu eta gero ondoriozta daitekeenez, esan dezakegu, gutxienez, Donostiako Udaleko 129 funtzionariok gerran parte hartu zutela hainbat batailoi errepublikanoetan. Batailoi gehienak komunistak ziren: Larrañaga (33) eta Rusia (12), edota ANVkoak: Eusko Indarra (12). Horietako 34 lagun frentean borrokatzent hil ziren.
  - 8- Aranzadi Zientzia Elkartearen agiriek datuak erkatu eta gero ondoriozta daitekeenez, espedientatutako langileetako 253 gutxienez, prozesu judiziala jasan zuten. Auzipetu horietako 71 kartzelan sartu zituzten eta bost kartzelan hil ziren: Porfirio Llamas (udaltzaina), Gregorio Cantalejo (pintorea), Angel Manrique (kale-garbitzailea), Jesus Onaindia (gordailuzaina) eta Antonio Sanchez de la Fuente (udaltzaina).

## 5. Konsultatutako oinarrizko bibliografia

- Aizpuru, M; Apaolaza, U; Gómez, JM<sup>a</sup>; Odriozola, Jon: *El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani*. Ed. Alberdania, 2007.
- Amilibia, M<sup>a</sup> Asunción: *El diario de la nostalgia*. Ed. Txalaparta, 2006
- Barruso, P: *"La represión en las zonas republicana y franquista del País Vasco durante la Guerra Civil"* UPV- EHU Historia contemporánea 35 zkia., 2007.
- Barruso, P: Verano y revolución. La guerra civil en Gipuzkoa (julio – septiembre de 1936), R&B, 1996
- Barruso, P: Violencia política y represión en Gipuzkoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936 – 1945). Hiria liburuak, 2005
- Chiapuso, M: Los anarquistas y la guerra de Euskadi. La comuna de San Sebastián. Ed. Txertoa, 2009
- Di Febo, G; Juliá Santos: *El franquismo. Una introducción*. Ed. Crítica, 2012

Egaña, I: 1936. La guerra civil en Euskal Herria. La guerra en Gipuzkoa. IV. liburua. Aralar Liburuak. 1998.

Egaña, I: Frankismoa Donostian. Las víctimas del genocidio franquista en Donostia. 2011.

Gabarain, Manuel: Así asesina Falange. Pampa, 1938

Luengo, F: "La formación del primer poder local franquista en Gipuzkoa (1937 – 1945)" *Gerónimo de Ustaritz, Boletín nº 4.*

Salegi, M: Verano del 36. Memorias de un gudari. Ed. Txalaparta, 2005

Donostia, 2013ko martxoaren 13a

Aranzadi Zientzia Elkartea.



Ministerio de Cultura

Ministerio de Cultura. España. Fondo Loyer.

1936ko altxamendu militarraren aurretik, errepublikar udalbatzak erabiltzen zuen eraikin zaharra.

Antiguo edificio que albergó a la corporación republicana, en fechas anteriores a la sublevación militar de 1936.



**Sobre las y los trabajadores  
represaliados en el  
ayuntamiento de  
Donostia - San Sebastián**

**1936-1940**



Por poder estar a favor de la República "depuró" el franquismo a maestras y maestros, jueces y fiscales, intelectuales, historiadoras e historiadores, periodistas, funcionarias y funcionarios, incluso a personal municipal...

En San Sebastián también sucedió así. Es importante aclarar la verdad de lo ocurrido, contar todos los acontecimientos.

Sabiendo que acontecimientos los hubo en ambos lados y que todas están en este estudio recogidas, esas personas que estaban a favor de la República fueron detenidas y condenadas, fusiladas y despedidas de sus empleos por apoyar a las instituciones públicas elegidas democráticamente, concretamente, por no adherirse al golpe. Intentaron borrar sus nombres y su recto proceder de la memoria del pueblo.

Pero el pueblo, sin embargo, no ha olvidado a los que tuvo a su favor. No hemos condenado al olvido a esas personas.

En pago a cuanto hicieron viene ahora, por tanto, como homenaje a funcionarias y funcionarios municipales represaliados, este pequeño libro publicado por un Ayuntamiento de nuevo elegido democráticamente. Para que toda aquella persona que tenga constancia de la poca vergüenza de la que hicieron gala en el pasado los militares golpistas y cuales fueron las consecuencias de sus actos en el Ayuntamiento de San Sebastián.

**Juan Karlos Izagirre,**  
alcalde de Donostia - San Sebastián



## **1 – Metodología de trabajo**

El trabajo que presentamos parte del deseo del Ayuntamiento de Donostia–San Sebastián de rendir homenaje a los trabajadores republicanos represaliados entre los años 1936-1940 a partir del 18 de julio de 1936, fecha en que se produjo la sublevación militar contra el gobierno de la Segunda República.

Para ello, y tras la firma de un convenio entre la Sociedad de Ciencias Aranzadi y el Ayuntamiento de Donostia–San Sebastián, Ainhoa Marañón se ha encargado de recoger la información que se encuentra en el Archivo Municipal de la ciudad, realizando una tabla en la que se desglosan uno a uno los expedientes abiertos por el Ayuntamiento por abandono de puesto por un lado, y los de depuración por otro. Estos datos han sido completados por Cristina Martín, y son los que se muestran en la Tabla 1, Anexo 1 al final del documento en archivo digital, con la siguiente información:

- 1- Nombre y dos apellidos del expedientado.
- 2- Sexo.
- 3- Sección a la que pertenece el trabajador.
- 4- Cargo del trabajador.
- 5- Años que dura el expediente, entre 1936/1940.
- 6- Cargos que se le imputan.
- 7- Expediente administrativo. Decisión final tomada.
- 8- Expediente judicial, condena.
- 9- Participación en la guerra.
- 10- Fallecimientos.
- 11- Signatura.
- 12- Fuentes

En total son 1623 trabajadores los que fueron sometidos a este proceso. Hubo 817 personas que fueron expedientadas por abandono de puesto de trabajo y 806 fueron depuradas, 253 fueron sometidos a procesos judiciales y hubo 82 penas de prisión.

